

Laguntza produktuak eta oztopoak ezabatzeko dirulaguntzak

Fitxa interneten bistaratu

INFORMAZIO OROKORRA

Aurkezteko epea Urteko edozein unetan, baina beti ere jardueraren hasiera, obra edo erosketa baino lehenago.

Helburua

Diru-laguntzak eta laguntza-produktuak ematea, ezgaitasuna duten edo mendetasun egoeran dauden pertsonak etxean egoten laguntzeko eta eguneroko jarduerak egiteko autonomia eta gizarteratzea lortuko dutela bermatzeko.

Nork tramitatzen du

- GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA
- Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zuzendaritza Nagusia
- Ezinduen eta Desgaituen Laguntzako Zerbitzua

Nori zuzenduta

Herritar guztiei:

• Laguntza produktu eta oztopoak kentzeari buruzko informazioa eta aholkularitza orokorra ematea, Donostia eta Eibarko Etxetek zentroetan, aipatu produktuak erakusgai edukiz bai zentru horietan eta baita Andoain, Irun eta Zarauzkoan ere (azken honetan oraindik ez bada ere, etorkizunean aurreikusia dago).

%33ko edo gehiagoko ezgaitasuna duten edo mendetasun-maila aitortua duten pertsonei:

- Gipuzkoako Foru Aldundiari laguntza horiek eskatzeko prozedurei buruzko informazioa.

Baldintzak

Baldintza orokorrak:

- Gipuzkoako lurralde historikoan erroldatuta egotea, gutxienez URTE BATEKO antzinatasunarekin.
- % 33ko edo gehiagoko ezgaitasuna duen pertsona gisa edo mendetasun egoeran dagoen pertsona gisa aintzat hartua izatea.
- Aurreko 6 urteetan antzeko laguntzarik jaso ez izatea, salbu ezohiko zergatia izanda; kasu horretan, dagokion txosten teknikoaz justifikatu beharko da.

HASIERA ETA ESKAERA

Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

[Laguntza teknikoen eskaera](#)

Aurkeztu beharreko agiriak

» Erroldatze ziurtagiria » Ezgaitasun edo mendekotasun egoeraren agiria

Abenduaren 23ko [87/2008 Foru Dekretuaren](#) 1 eta 2 eranskinetan agertzen diren izaera espezifikodun eskakizunak egiaztatzen dituzten agiriak.

Eskaera moduak

» Presentziala

Zuzeneko arretarako bulegoak

- [Udaletako oinarrizko Gizarte Zerbitzuak](#)
- **ETXETEK**

Tel: 943 312 005

E-mail: laguntzateknikoak@gipuzkoa.eus

EBAZPENA

Ebazteko gehienezko epea

6 hilabete.

Administrazioaren isiltasuna

Ezestekoa

Honen bidez jakinarazten da

» Ohiko postaz

ARAUDIA

Abenduaren 23ko [87/2008 FORU DEKRETUA](#), ezgaitasuna duten edo mendetasun egoeran dauden pertsonentzako Etxean Programako laguntzak ematea arautzen duena.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua, 2008ko abenduaren 31n.

[2017ko Baremo ekonomikoa](#).

INFORMAZIO OSAGARRIA

Oharrak

Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntzen dituen laguntza-produktuak honela banatzen dira, berrerabiltzeko aukeren arabera:

- **Berreskuragarriak:** berrikusi eta higienizatu ostean pertsona batek baino gehiagok berrerabil ditzaketenak. Produktu horiek erabilerarako uzten dira eta ETXETEKEN biltegietatik datoz; salbuespenezko kasuetan, eskaera egiten duen pertsonari diru-laguntza ematen zaio, produktua erosi dezan; hala eta guztiz ere, produktuaren jabea Foru Aldundia da.

- **Berreskuraezinak:** besterenezinak direnak; esaterako, obrak edo gailu finkoak.

Diru-laguntzak ordaintzeko, diru-laguntza emateko erabakia jaso ondoren, eskatzaileak hauek aurkeztu beharko ditu:

- Dagozkion faktura originalak (ala fotokopia konpultsatuak) eta beste erakundeetatik jasotako laguntzak biltzen dituen erantzukizun-deklarazioa, emate-erabakia jaso eta 3 hilabeteko epean, gehienez.

- Laguntza-produktu berreskuragarriak erosteko diru-laguntzak emateko eskaerei dagokienez, aurrekoetz gain, dagokien ordain-agiria eta itzultzeko konpromisoa.

Informazio gehigarria

Zer da laguntza produktua:

Laguntza produktuak -edo laguntza teknikoak- ezgaitasuna eta mendetasuna saihesteko, orekatzeko, arintzeko edo desagerrarazteko erabiltzen diren produktuak, tresnak, ekipamenduak eta sistema teknikoak dira.

Laguntzen tipologia:

- Mugikortasunerako eta garraioak erabiltzeko laguntzak.
- Irisgarritasunerako eta eraikuntzarako laguntzak.
- Babes eta zaintza pertsonalerako laguntzak.
- Etxebizitzetako higigarri eta egokitzenaren laguntzak.
- Komunikazio, informazio eta seinaleztapenerako laguntzak.

Laguntza zehatzak:

- Babes eta zaintza pertsonalerako eta mugikortasunerako laguntzak (adibideak):
- Ohe artikulatuak, eskaren kontrako koltxoak ...
- Gurrpil-aulki motordunak eta aulki bereziak...
- Ibilgailuak egokitzeko osagarriak...
- Bainugelako osagarriak: bainuontzirako eserleku birakariak, komunerako altxagarriak, heldulekuak...
- Igotzeko eta lekualdatzeko gailuak: mugitzeko garabiak eta antzeko tresnak...
- Etxebizitzaren irisgarritasunerako (adibideak):
- Etxe barruko oztopoak kentzea: bainuontziaren ordeztutxa jartzea, ateak handitzea, sistema domotikoak jartzea...
- Etxean sartzeko oztopoak kentzea: atarrietan arrapalak eta plataformak, eskailerak igotzeko eta jaisteko tresnak...
- Komunikaziorako (adibideak):
- Besteekin komunikatzeko tresnak, hizketa ezagutzeko sistemak, entzuteko protesiak, komunikatzen laguntzeko gailu informatikoak.